

MAIATZAK 1

LANGILEEN ALDE

Gutxieneko soldata eta pentsioak

hemen erabaki



Kapitalistek mundu mailan etengabeko krisi ekosoziala eragiten dute. Bestelako eredu baten alde egiteko unea da, denon bizitzak erdigunean jarriko dituen; enplegua, zaintza lanak eta ondasuna era justuan banatuko dituen.

Alabaina, eredu aldaketa eragotzi eta zanaketari eusteko xedez, elite ekonomikoek gerra estrategiari eutsi eta olatu erreakzioarioa hauspotu dute. Euskal Herrian militarismoaren, arrazakeriaren edota indarkeria matxistaren eragina nabarmena bada ere, hemen badago eremu sozial, sindikal eta politiko zabala denon eskubideen alde egiteko prest.

Patronala aseezina da. Gero eta etekin gehiago metatu nahi du. Ekonomia moteltzen den garaietan, krisia langileok ordain dezagun presio egiten du. Enpresei ongi doakienean, berriz, irabaziak akziodunen artean banatu eta langileon lan baldintzak hobetzeari uko egiten dio; areago, kaskartzen jarraitzen du.

Patronalaren diru gosea nabarmen geratu da pandemia osteko prezioen gorakada bizi izan dugunean. Enplegu ordaindua duten langileen artean (kanpo geratzen dira soldatarik gabe lan egiten duten langileak; emakumeak*, nagusiki) KPlaren arabera soldata igoerei uko egiteak aspaldi ez bezalako gatazka kopurua eragin du. Zorionez, euskal langileriak borrokaren aldeko apustua egin du.

Langileen alde, hemen erabaki

Ez dugu ezer espero Paristik edo Madrildik! Azken hamarkadetan, bi estatu horien ondoz ondoko gobernuek zerbitzu publikoen eta langileen oinarritzko eskubideen suntsiketa antolatu dute.

Duintasunez bizitzeko aukera ematen diguten lan baldintza, soldata eta pentsio onak lortzeko, ezinbestekoa da negoziazio eta erabaki instantziak hurbiltzea. Guri dagokigu antolatzea eta indar harreman eraginkorra eraikitzea, sindikatuak eta patronalak Ipar Euskal Herriko eskalako negoziazio kolektiboko instantzietan parte har dezaten, langile publiko zein pribatuentzat.

Tresna horiek benetako alternatiba bat dira, Ipar Euskal Herriak, aitortza sozialaren bidez, langile klasearen alde jarduteko indar gehiago eta eskumena izan ditzan.

Ipar Euskal Herri mailako Tokiko Batzorde Paritarioa eta Herriarteko Lurralde Batzorde Soziala sortzea urrats handia litzateke gure lurraldearen burujabetza sozialerako, hobe-sozialerako gun e izan dadin.

Mobiliza gaitezen!

Eskuin muturrak agenda politikoan bere gaiak agintzen dituen garaian, borroka gaitezen langile klaseari benetan eragiten dioten aldarrikapenak plazaratzeko: osasun sistema publiko sendoa, etxebizitza duin eta eskuragarria, zaintza sistema publikoa... Alor guztietan presioa egiten jarraitu behar dugu: ekintza sindikala, kale mailan eta maila politikoan.

Orain arte bezala, borrokaren bidez lortuko dugu langileon aldeko garaipen berriak eskuratzea. Horregatik da hain garrantzitsua aurtengo Maiatzaren Leheneko mobilizazioetan parte hartzea. Maiatzaren Lehenean, bultzada berri bat emango diogu langile borrokari!

MANIFESTALDIAK
Baiona, 11:00etan tren geltokian
Maule, 11:00etan Kurutze Xurian

MAIATZAK 1

LANGILEEN ALDE

Pour des salaires et des retraites dignes

hemen erabaki



Les capitalistes provoquent une crise écosociale mondiale permanente. Il est temps d'opter pour un modèle différent qui place la vie de tou·tes au centre, et qui répartit équitablement l'emploi, les tâches liées aux soins et les richesses.

Cependant, afin d'empêcher le changement de modèle et de maintenir la domination, les élites économiques ont accentué leur stratégie de guerre et ont encouragé la vague réactionnaire. Si l'influence du militarisme, du racisme et/ou de la violence machiste est évidente en Euskal Herria, il existe ici un vaste espace social, syndical et politique prêt à défendre les droits de tou·tes.

Le patronat est insatiable. Il veut accumuler de plus en plus de profits. À une époque où l'économie ralentit, il met la pression pour que les travailleur·euses payent la facture de cet état de crise. En revanche, lorsque les entreprises se portent bien, elles répartissent les bénéfices entre les actionnaires et refusent d'améliorer les conditions de travail de ces travailleur·euses, voire, continuent de les dégrader.

La cupidité du patronat a été une évidence lorsque nous avons connu la hausse des prix après la pandémie. Le refus d'augmenter les salaires selon l'IPC parmi les travailleur·euses rémunérés (les travailleur·euses qui accomplissent des tâches non-rémunérées sont majoritairement des femmes*) a provoqué un nombre de conflits sans précédent. Heureusement, la classe ouvrière fait le pari de la lutte.

Pour les travailleur·euses, décidons ici

Nous n'attendons rien de Paris ni de Madrid ! Ces dernières décennies, les gouvernements successifs de ces deux Etats ont organisé la casse du service public et des droits fondamentaux des travailleur·euses.

Pour de bonnes conditions de travail, des salaires et des pensions qui nous permettent de vivre dignement, il est essentiel de rapprocher les instances de négociations et de décision. Il nous appartient de nous organiser pour construire un vrai rapport de force afin que les organisations syndicales et le patronat s'impliquent dans des instances de négociations collectives, à l'échelle d'Ipar Euskal Herria, pour les travailleur·euses du public comme du privé.

Ces outils représentent une réelle alternative pour que Ipar Euskal Herria, à travers sa reconnaissance sociale, se dote de plus de pouvoir d'agir en faveur de la classe travailleuse.

La création en Ipar Euskal Herria d'une Commission Paritaire Locale [CPL] et d'un Comité Social Territorial Intercommunal [CSTI] représente un grand pas pour la souveraineté sociale du territoire pour en faire un espace de mieux-disant social.

Mobilisons-nous !

A l'heure où l'extrême droite impose ses sujets dans l'agenda politique, luttons pour porter les revendications qui concernent réellement la classe travailleuse : un système public de santé fort, des logements décents et accessibles, un système public de soins... Nous devons continuer à mettre la pression dans tous les domaines : action syndicale, au niveau de la rue et au niveau politique.

Comme nous l'avons fait jusqu'à présent, c'est par la lutte que nous obtiendrons de nouvelles victoires pour les travailleur·euses. C'est pourquoi il est si important d'être ensemble le 1er Mai. Mobilisons-nous et donnons un nouvel élan à la lutte des travailleur·euses !

MANIFESTATIONS

Baiona – Gare - 11 :00

Maule – Croix-Blanche – 11 :00

LAB

EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA